



KIROL FEDERAZIOAK

- ✓ Gida hau mota hauetako ziurtagiriei aplikatuko zaie:

Ordezkaria,

- Pertsona fisikoaren ziurtagiri kualifikatu gisa jaulkitako ziurtagiria.
- Erakundeari lotzen zaio eta identifikatutako pertsona fisikoa legezko ordezkaria dela egiaztatzen du.

Profesionala-Korporatiboa,

Sektore publikoko zein arlo pribatuko erakunde baten esparruan jaulkitzen da.

Motak.

- Profesionala-Korporatiboa, kualifikatua
 - Sinadura elektronikoko ziurtagiri kualifikatu gisa konfiguratzeko da.
 - Erakunde jardulea identifikatzen du, baita bertan kargu edo lanpostu bat duen pertsona ere.
- Profesionala-Korporatiboa, kualifikatu gabea
 - Erakunde jardulea ziurtagiriaren harpidedun gisa identifikatzen du ziurtapen-maila ertainarekin, eta bertan kargu edo lanpostu bat duen pertsona gakoan edukitzea gisa identifikatzen du.
 - Ez da kualifikatutzat hartzen.

Entitate-ziqilua

- Pertsona juridikoaren ziurtagiri kualifikatu gisa jaulkitako ziurtagiria.
- Ziurtagiri horrek entitatea identifikatzeko aukera ematen du, baita, hala badagokio, pertsona eskatzailea ere.
- Era berean, aukera ematen du frogatzeko entitateak jaulki duela dokumentu elektronikoa jakin bat, eta dokumentuaren jatorriaren eta integritatearen ziurtasuna eskaintzen du.

- ✓ Kasuan-kasuan aplikatzekoa den eta www.lzenpe.eus web-gunean argitaratu den *Ziurtapen Politikaren* esparruan ulertu beharko da.



KIROL FEDERAZIOAK

ZIURTAGIRIAREN BIZI ZIKLOA

1. ZIURTAGIRIA ESKATZEA.

[Izenperen web-gunean](#) sartuta, osatuko du eskatzaileak ziurtagiria eskatzeko formularioa.

Eskaera sinatuta, eskatzaileak ziurtagiriaren [terminoak eta baldintzak](#) onartuko ditu.

2. PERTSONA FISIKO ESKATZAILEAREN NORTASUNA EGIAZTATZEA

Izenpek eskatzailearen nortasuna egiaztatuko du,

- ✓ **Aurrez aurre**, erregistro-entitatearen aurrean, indarrean dauden agiri hauen bidez,
 - Espainiako hiritarra bada, NANA, pasaporte edo gida-baimena.
 - Europar Batasuneko/Europako Esparru Ekonomikoko hiritarra bada, AIZ eta pasaporte edo haien herrialdean baliokidea den nortasun-agiri nazionala.
 - Europar Batasunaz kanpoko hiritarra bada, AIZ eta pasaporte.

Eskatzailearen identifikazioa ezin bada goian adierazitako moduan egin, Izenpek zehaztuko du kasuan-kasuan beharrezkoa den dokumentazioa.

- ✓ Ziurtagiria jaulkitzeko eskaerako sinadura **notarioaren aurrean legitimatuta**.
- ✓ Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeraren **sinadura** egiten denean eNAN bidez, pertsona fisikoaren **ziurtagiri kualifikatu** bidez edo entitatearen ziurtagiri bidez edo nortasun juridikorik gabeko entitatearen ziurtagiri bidez, Izenpek jaulkitakoak biak.

3. ERAKUNDEAREN EGIAZTAPENA ETA ESKATZAILEAREN AHALMENAK

Hauek aurkeztu beharko dira:

- [Erakundearen IFZ](#): jatorrizkoa eta kopia.
Ziurtagiriaren lehen jaulkipenean soilik aurkeztuko da.
- Ziurtagiria eskatzen den egunaren aurreko hamar egun baliodunetan honako alderdi hauek egiaztatzeko jaulkitako [erregistro-ziurtagiria](#):
 - Entitatearen indarraldia.
 - Eskatzaileak legezko ordezkaria gisa duen ahalmena (presidente).



KIROL FEDERAZIOAK

- Erakundea orotariko pertsona pribatuen edo publikoen aurrean ordezkatzeko ahalmena duen [ordezkaritza-ahaldun orokorra](#) izanez gero, eskatzaileak ahalmen hori egiaztatzen duen notario-eskriuraren jatorrizkoa eta kopia aurkeztu beharko du.
- Edo ziurtagiria [lortzeko eta erabiltzeko ahalordetze-klausula berezia eta zehatza](#) duen ahalordea; eskatzaileak ahalmen hori egiaztatuko duen notario-eskriuraren jatorrizkoa eta kopia aurkeztu beharko du.
- ✓ Eusko Jaurlaritzaren [kirol-federazioen erregistroan inskribatutako kirol-federazioen](#) kasuan, Izenpek bere gain hartuko du erakundea egiaztatzea.

4. ZIURTAGIRIA JAULKITZEKO ETA EMATEKO PROZEDURA

Ondoren, Izenpek ziurtagiria jaulkitzeari eta emateari ekingo dio, hautatutako euskarriaren arabera.

Izenperen SOFTWAREA _ EDUKITZAILEA

1. Izenpek hutsik dagoen edukitzaile bat bidaliko dio eskatzaileari, posta elektronikoko bidez, eskaeran adierazitako helbidera.
2. Eskatzaileak edukitzailea hasieratuko du, eta gako-parea eta eskaera teknikoa (csr) sortuko du.
3. Eskatzaileak Izenperi bidaliko dio eskaera teknikoko fitxategia (csr).
4. Izenpek ziurtagiria jaulkiko du, eskatzaileak bidalitako eskaera teknikoa erabilita.
5. Izenpek eskaera-formularioan adierazi den helbide elektronikora bidaliko du ziurtagiria.

TXARTELA / TOKEN USBa

➤ [Bertaratuta ematea.](#)

Izenpek eskatzaileari edo hirugarren baimenduari emango dio ziurtagiria, PINa eta hori desblokeatzeko kodea (PUKa) —hirugarren baimenduak baimen sinatua eta notarioak legitimatua aurkeztu beharko du—.

➤ [Bertaratu gabe ematea.](#)

Izenpek bi bidalketa bereizitan igorriko ditu ziurtagiria eta gakoak *ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako posta-helbidera, eta bidalketaren gastuak entitate eskatzailearen kargura izango dira. Izenpek egiaztatuko du gakoan edukitzaileari soilik egiten zaiola bidalketa.



KIROL FEDERAZIOAK

HSMa

Izenpek

- Haren HSMa sortuko du ziurtagiria, baita erabiltzaile bat eta pasahitz bat ere (gakoan edukitzaileari soilik ematen zaizkiola bermatuko du).
- Mezu elektronikoa bidaliko du *ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran* adierazitako helbidera, hura erabiltzeko argibideekin batera.

5. ZENBATEKOA

Ziurtagiriaren eskatzaileak ordaindu beharko du ziurtagiriaren zenbatekoa, betiere hautatutako ordaintzeko moduaren arabera.

Izenpek urtero argitaratzen ditu aplika daitezkeen tarifak bere www.izenpe.eus web-gunean.



KIROL FEDERAZIOAK

ERANSKINA_HIRUGARREN BATEK ZIURTAGIRIA JASOTZEKO BAIMENAREN EREDUA

Izenpek honako hau **jakinarazten dizu**:

- Dokumentu honen helburua dela hirugarren bati ziurtagiria jasotzeko zuzendutako baimenaren balizko eredu bati buruzko argibideak ematea erabiltzaileari.
- Baimena notario aurrean eman beharko dela eta pertsona baimen-emailearen sinadurak legitimatuta egon beharko duela.

_____ jaunak/andreak (ziurtagiriaren eskatzaileak)

BAIMENTZEN DIO

_____ jaunari/andeari
(ziurtagiria eskatzeko pertsona baimenduari) NAN _____ duenari, dokumentu honi gehitzen zaion eskaeraren esparruan, bere izenean jasotzeko:

- Sinadura elektronikoko ziurtagiria, PINa, PINa desblokeatzeko kodea (PUKa) eta telefono bidezko identifikaziorako pasahitza jasotzen duen orria, eskatzaileari osorik emateko.
- Erregistro kode bakarra (EKB), nabigatzailearen edo gailu mugikorren euskarrian jaulkitako ziurtagirien kasuan.
- Erabiltzailea eta pasahitza, Egoitzan jaulkitakoa bada.

Baimen horren ondorioz, Izenpek ez du zaintzan eta, ondorengo, entregan izan daitezkeen inguruabarretan inolako erantzukizunik izango.

Aurrekoa irakurri eta horrekin ados egonik, nirekin sinatu du.

Notarioa

Data eta sinadura

Baimen-emailea

Data eta sinadura



KIROL FEDERAZIOAK

Entitatearen izena (eratzeko dokumentuan jasotzeko den moduan adierazi behar da) _____ IFK duena

- Elkartek
- Kirol-elkartek
- Aldi bat. Enp. Elk.
- Elkargo profesionalak
- Ureztatze-erkidegoak.
- Jabeen erkidegoak
- Sindikatuak
- Ikastetxeak
- Udalak

_____ jaunak/andreak,
idazkari/gerente den aldetik (azken kasua aldi baterako enpresa elkarten kasuan)

ZIURTATZEN DU

- Entitatea balioz eraturik eta indarrean dagoela.

_____ jaunak/ andreak

dokumentu honi txertatzen zaion eskaeran adierazitako ziurtagiria eskatzen du, kargu hau duen aldetik:

- Legezko ordezkaria (presidentea / gerentea, aldi baterako enpresa elkarten kasuan / alkatea).
- Ordezkaritzako ahaldu orokorra, erakundea orotariko pertsona pribatuen edo publikoen aurrean ordezkatzeko ahalmena duena.
- Edo ziurtagiria lortzeko eta erabiltzeko ahalordetze-klausula berezia eta zehatza duen ahalordea.

Data _____

Sinadura.

Idazkaria / Gerentea (ABEE).

Ikus-onetsia, presidentea / alkatea

- Ondasun-erkidegoak
- Jaraunspen jasogabeak
- Sozietate zibilak.

_____ jaunak/andreak

_____ jaunak/andreak

_____ jaunak/andreak

gaur egun erakundeko kide diren aldetik.

HONAKO AITORPEN ERANTZULE HAU EGIN DUTE

- Entitatea balioz eraturik eta indarrean dagoela.
- Gehiengoz erabaki dutela

_____ jn./and.

izatea ziurtagiria eskatzeko izendatuko den erakundeko kidea.

Data _____

Sinadura

Sinadura

Sinadura

Sinadura